

Entseatzeko balioko diguten galderak erantzuten

1. Begira ezazu galdera eta azpimarratu gako-hitzak

2. Identifikatu zein hitz diren:

Argibideak: nola erantzun behar duzun adierazten duten galderak. Adibidez: deskribatu, alderatu, eztabaidatu.

Gaiak: gaia zein den adierazten duten hitzak.

Gakoa: galderaren mugak zeintzuk diren adierazten duten hitzak.

Esanguratsuak diren beste hitz batzuk: informazioa eskaintzen dute hitzak.

3. Azpimarratu galderaren ondorengo atalak.

Adibide gisa:

“**Alderatu eta egiaztatu azken Erdi Aroaren baitan Europako bi eskualdetan**, gutxienez , ageri ziren **landa eremuko kokaleku motak**”

- **Jarraibidea** - **Gaia** - **Alderdi nagusia** - **Esanguratsuak diren beste hitz batzuk**

4. Jarraibidea: Egin behar duzuna

Jakinarazi: Zerbaiten zergatia azaldu.

Analizatu: Banatu gaia atalka eta bakoitzaren inguruan eztabaidan jardun.

Alderatu: Gauzen arteko antzekotasunak adierazi.

Egiaztatu: Gauzen arteko desberdintasunak adierazi.

Kritikatu: Indargune eta ahulguneak adierazi.

Definitu: Esanahia argi azaldu, antzeko gauzengandik bereizten duen hura agerian uzteko.

Eztabaidatu: Tentuz analizatu eta aldeko zein kontrako argudioak eman: xehetasunak erabili.

Ebaluatu: Gertaeretan oinarrituta, zure iritzia eman: adituek esandakoa nabarmenduta. Zerbaitek zeinen ondo edo gaizki funtzionatzen duen adierazi.

Azaldu: Iritzi ezberdinak edo emaitzak arrazoitu eta zergatiak aztertzen saiatu.

Ilustratu: Problema bat azaltzeko estadistikak edo adibideak erabili.

Interpretatu: Esanahia azaltzeko asmoz adibideak jarri eta zure iritzia eman.

Justifikatu: Zerbait zuzena den edo ez frogatu: zure ondorioak arrazoitu.

Zerrendatu: Puntu laburrak egin, banan-banan.

Zirriborroa egin: Zerbaiten puntu nagusiak eman.

Erakutsi: Zerbait seinalatu edo frogatu – gaiaren gakoa identifikatu- eta gauzak nola erlazionatzen diren edo elkarri nola jarraitzen dioten erakutsi.

Adierazi: Puntu nagusiak eman.


Iradoki: Agerian utzi zerbaitek balioa duen edo ez.

Laburtu: Xehetasunak albo batera utzi eta hautatu puntu nagusiak.

Arakatu: Gertaeren edo ideien aurrerapena edo garapena deskribatu.

5. Erantzuten lagunduko dizuten irudiak erabili

- Antzekotasunak alderatu.
- Desberdintasunak egiaztatu.
- Analizatu – tentuz behatu atal guztiak eta horien arteko erlazioak. Banatu gaia ataletan eta bakoitzaren inguruan hausnartu.



6. Erabili eskema bat erantzuna antolatzeko

